ZARAUZKO UDALA

ZERBITZU PROZEDURA IREKI SUPER SINPLIFIKATU EDO SUPER ERRAZTU BIDEZ ADJUDIKATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA		**PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA LA ADJUDICACIÓN DEL CONTRATO DE SERVICIOS POR PROCEDIMIENTO ABIERTO SUPER SIMPLIFICADO**
ZARAUZKO ERAZTUN BREDE URDINAREN IBILBIDEETAN IRTEERA GIDATUAK GARATZEKO ZERBITZUA 2024IK210002		**SERVICIO PARA OFRECER VISITAS GUIADAS EN RECORRIDOS DEL ANILLO VERDE AZUL DE ZARAUTZ** 2024IK210002
1. SARRERA Zarauzko naturaguneetako biodibertsitatearen eta ondare naturalaren zaintza helburu duen azpiegitura berdea da Zarauzko Eraztun Berde Urdina (EBU) https://eraztunberdeurdina.eus/ Proiektu bizia da, herritarren ekarpenekin moldatzen eta eraldatzen ari da eta zarauztarroi, herriko ikastetxeei, zein bisitariei aisialdian eta aire librean gozatzeko aukera ederra eskaintzen digu. 13 km-ko ibilbidea baten bidez, mendia eta itsasoa batzen ditu Eraztun Berde Urdinak. Ibilbidean zehar, hainbat interesgune lotzen dira: Arkamurka ibilbidean, Zingira basoa, Mutxio parkea, Vista Alegreko parkea eta Santa Barbarako landa-eremuak daude. Ekialdean, berriz, Talaimendi/Iñurritza bidea eta hezeguneen ibilbidea daude. Azken horretan, interes puntu garrantzitsu batzuk ere badaude, hala nola, Iñurritza, Irita eta Astiko hezeguneak eta Buztinzuriko haltzadia. 2018. urteaz geroztik, Zarauzko Udalak Eraztun Berde Urdineko balio naturalak ezagutarazteko irteera gidatuak eskaintzen dizkie bai herritarrei bai ikastetxeei. Irteeren programa urteetan zehar egonkortu egin da eta pr **3. KONTRATUAREN XEDEA** Kontratuaren xedea da Zarauzko Eraztun Berde Urdineko ibilbideetan zehar bisita gidatuak egitea. Bi motatako bisita gidatuak izango dira: batetik, herritarrei zuzendutakoak eta, bestetik, ikastetxeei eskainitakoak. Bisita gidatuetan, gune natural horien ezaugarriak erakutsiko dira, besteak beste, gune bakoitzaren habitatak, fauna, flora, hidrogeologia, paisaia, klima		**1. INTRODUCCIÓN** El Anillo Verde Azul de Zarautz (EBU) https://eraztunberdeurdina.eus/es es una infraestructura que tiene como objetivo la conservación de la biodiversidad y el patrimonio natural de los espacios naturales de Zarautz. Se trata de un proyecto vivo que se está adaptando y transformando con las aportaciones de la ciudadanía y que nos ofrece tanto a la ciudadanía y visitantes como a los centros escolares una gran oportunidad para disfrutar del tiempo libre al aire libre. El Anillo Verde Azul une el mar y la montaña a través de un recorrido de 13 km. A lo largo del recorrido se unen varios puntos de interés: en el itinerario Arkamurka se encuentran el bosque de Zingira, el parque de Mutxio, el parque de Vista Alegre y las zonas rurales de Santa Bárbara. Hacia el este se encuentra el camino de Talaimendi/Iñurritza y el itinerario de los humedales. En este último, hay también puntos de interés importantes como los humedales de Iñurritza, Irita y Asti y la aliseda de Buztinzuri. El Ayuntamiento de Zarautz ofrece desde 2018 visitas guiadas tanto a la ciudadanía como a los centros escolares para dar a conocer los valores naturales del Anillo Verde Azul. El programa de salidas se ha consolidado a lo largo de los años y refuerza el propio proyecto. **3.OBJETO DEL CONTRATO** El objeto del contrato es la realización de visitas guiadas en recorridos del Anillo Verde Azul de Zarautz. Se diferencian dos tipos de visitas guiadas: por un lado, las dirigidas a la ciudadanía y, por otro, las que se proponen a los centros escolares. En las visitas guiadas se mostrarán las características de estos espacios naturales, tales como hábitats de

aldaketarekiko eragina, gunearen kudeaketa (jabetza, babes- figurak, kudeaketa-planak, orain arte egindako berreskuratze-lanak, hemendik aurrera egingo direnak) eta abar. Era berean, garrantzitsua izango da gaur egungo egoera azaltzea, bere arazo eta guzti, eta konponbidea jarri ezean gerta litezkeen ondorioak aztertzea.		cada zona, fauna, flora, hidrogeología, paisaje, su afección al cambio climático, gestión del espacio (propiedad, figuras de protección, planes de gestión, labores de recuperación realizadas hasta la fecha, las que se llevarán a cabo a partir de ahora), etc. Asimismo, será importante explicar la situación actual con sus problemas y analizar las posibles consecuencias en caso de no poner una solución.
Ibilbideak Eraztun Berde Urdinean barrena egingo dira, nagusiki hiru eremu hauetan:		Los itinerarios se realizarán a través del Anillo Verde Azul, principalmente en estos tres ámbitos:
Hezeguneen ibilbidea: Zarauzko erdigunetik oso gertu aurkitzen bada ere, Eraztun Berde Urdinaren altxor ezkutu eta ezezagunenak lotzen dituen ibilbidea da. Altxor horiek Igerain errekan, Abendaño errekan eta Astierrekan daude eta interes handiko habitatak osatzen dituzte. Irita eta Astiko hezeguneek, aldamenean dagoen Iñurritzako Paisaia Natural Babestuarekin batera, garrantzia handiko multzo ekologikoa osatzen dute. Hezegune horietan egindako azterlan ezberdinek egun legez babestu gabe dauden bi eremu horien balioa erakutsi dute, bai biodibertsitate handia dutelako (izan ere, babestuta dauden habitat eta espezie ugari agertzen dira) eta baita hiri-ingurunean uholde-arriskua murrizten dutelako ere. Irita eta Astiko hezegunea berreskuratzeko ahaleginak egiten ari da Zarauzko Udaleko Ingurumen Departamentua, eta urte gutxitan eremuaren lehengoratze-lanek eman dituzten emaitzak oso bistakoak dira. Buztinzuriko haltzadia berreskuratzeko lanak ere egin dira eta, gaur egun, herrigunetik gertu, ezustean, basoaz gozatzeko aukera aparta ematen duen txoko natural berezia dugu.		**Recorrido de los humedales:** aunque se encuentra muy próximo al centro de Zarautz, abarca tesoros desconocidos y escondidos del Anillo Verde Azul. Estos tesoros están vinculados a las regatas de Igerain y Astierreka y al río Abendaño y conforman hábitats de gran interés. Los humedales de Irita y Asti, junto con el Paisaje Natural Protegido de Iñurritza que se encuentra al lado, forman un conjunto ecológico de gran importancia. Distintos estudios realizados en dichos humedales nos demuestran el gran valor ecológico que tienen (aunque hoy en día no están protegidos) ya sea por su biodiversidad (por sus numeroso hábitats y especies protegidas), ya sea por su capacidad de mitigar el riesgo de inundaciones en el entorno urbano. El Departamento de Medio Ambiente del Ayuntamiento de Zarautz está llevando a cabo trabajos de recuperación en el humedal de Irita y de Asti, y, en pocos años, se están viendo los resultados. También se han llevado a cabo labores para restaurar la aliseda de Buztinzuri y hoy en día, muy cerca del centro urbano, podemos disfrutar, sorprendentemente, de un espacio natural como es el bosque.
https://eraztunberdeurdina.eus/ibilbideak/hezeguneen-bidea/		https://eraztunberdeurdina.eus/es/rutas/camino-de-los-humedales/
Talaimendi /Iñurritzako eremua Natura 2000ko Kontserbazio Bereziko Eremuan kokatuta dago eta Paisaia Natural Babestua izendapena du 1997. urteaz geroztik, errekako eta hezeguneko ekosistemak duten bioaniztasuna eta ahultasuna babesteko. Bertako dunen ekosistema Kantauri aldean kontserbatzen den gutxienetakoa da, eta		El ámbito de **Taialmendi/ Iñurritza** se sitúa en la Zona de Especial Conservación de la Red Natura 2000 y es Paisaje Natural Protegido desde el año 1997, para proteger la biodiversidad y la vulnerabilidad de los ecosistemas que conforman la zona. El ecosistema de las dunas es uno de los mejores ejemplos y mejor conservados de la costa cantábrica y en ella se pueden encontrar algunas de las especies de plantas que están en peligro de

bertan aurki ditzakegu galtzeko zorian dauden hainbat landare espezie. Gainera hegazti askori ere babesa ematen die gune horrek, bereziki hegazti migratzaileei.

https://eraztunberdeurdina.eus/interes-guneak/inurritzako-biotopoa/

Arkamurka ibilbidea / Zingira basoa Garate-San Barbara Kontserbazio Bereziko Eremuan dago. Artelatza da (*Quercus suber*, Zarautzen arkamurka) gune hori babesteko arrazoi nagusia. Izan ere, EAEko artelatz baso-masaren %76a babestutako eremu honetan dago. Zarauzko Udaleko Ingurumen Departamentua lan garrantzitsua egiten ari da Zarautzen dauden aleak berreskuratzeko, eta 4 lursail erosi ditu Zingira basoan eta Gesoerrekan, arkamurka basoak berreskuratzeko eta bere biodibertsitatea babesteko.

https://eraztunberdeurdina.eus/ibilbideak/arkamurka-bidea/

4. EGINKIZUN OROKORRAK

Kontratua behar bezala betetzeko, enpresa adjudikaziodunak ondorengo lanak bete beharko ditu:

Herritarrei eskainitako irteera gidatuak:

Lizitatzaileak kontuan izan beharko du irteeretan parte hartzen dutenak ez direla entzule pasibo soilak izan behar, baizik eta jardueraren protagonista bihurtu behar direla arazoak konpontzeko eragile gisa.

Horretarako, ezinbestekoa izango da edukiaren eta metodologiaren aldetik aurrez irteera prestatzea. Gainera, egunean bertan, gidariak lan hauek egin beharko ditu: taldearen konposizioa hasieran aztertu, partaideei egokitutako eta zuzendutako diskurtso-maila eta diskurtso-mota erabili, komunikazio-baliabideak zaindu eta abar. Helburua da irteerak aisialdi ona eskaintzeaz gain, tresna bat izatea bisitariak naturarekiko duten jarrera eta parte hartzea eraldatzeko.

extinción. Además, ofrece protección a muchas especies de aves, sobre todo, a especies migratorias.

https://eraztunberdeurdina.eus/interes-guneak/inurritzako-biotopoa/

La ruta Arkamurka / bosque de Zingira se encuentra en la Zona de Especial Conservación de Garate-Santa Bárbara en la Red Natura 2000. La principal razón para proteger este espacio es la presencia del alcornoque *(Quercus suber)*, y es que alrededor del 76% de la masa forestal de alcornoques de la CAV se encuentra aquí. El Departamento de Medio Ambiente del Ayuntamiento de Zarautz está llevando a cabo un trabajo importante para recuperar los ejemplares que se encuentran en Zarautz, y ha comprado 4 terrenos en el bosque Zingira y en Gesoerreka para recuperar los alcornocales y proteger su biodiversidad.

https://eraztunberdeurdina.eus/es/rutas/ruta-arkamurka/

4. FUNCIONES GENERALES

Para cumplir correctamente el contrato, la empresa adjudicataria deberá realizar las siguientes tareas:

Visitas guiadas ofrecidas a la ciudadanía:

El licitador deberá tener en cuenta que las personas que participan en las salidas no deben ser meros oyentes pasivos, sino que deben convertirse en protagonistas de la actividad como agentes de resolución de problemas.

Para ello, será necesario preparar previamente la salida en cuanto a contenido y metodología. Además, en el mismo día, el guía deberá analizar inicialmente la composición del grupo, utilizar el nivel y tipo de discurso adaptado y dirigido a los/las participantes, cuidar los recursos comunicativos, etc. El objetivo es que la salida, además de ofrecer un buen tiempo de ocio, sea una herramienta para transformar la actitud y participación del visitante con respecto a la naturaleza.

ZARAUZKO UDALA

- Adjudikazioadunak gidatu beharko dituen irteerak, printzipioz, hauek dira: Arkamurka ibilbidea, Hezeguneen ibilbidea eta Iñurritzako ibilbidea.

- **Arkamurka ibilbideko** eta **Hezeguneen ibilbideko** bisita gidatuak ostiraletan eskainiko dira udan arratsaldez, astez aste txandatuz, eta **Iñurritza** ibilbidea, berriz, larunbat goizetan izango da, bi astean behin.
- Irteera gidatuak urtean bi garaitan burutuko dira:
    - Aste Santuan.
    - Udan: uztaila, abuztua eta irailean.

- Guztira, printzipioz, **18 bisita** gidatu proposatzen dira, horietako **6 Iñurritza** ezagutzera emateko, **6 hezeguneen ibilbidea** ezagutzeko, eta beste **6 Arkamurka ibilbideaz** gozatzeko.
- Hala ere, irteeraren bat bertan behera gera daiteke eta besteren bat proposatu dezake Udalak, gutxienez 15 eguneko epean jakinarazita.
- Beraz, kontratuaren baitan gehienez 24 bisita sartuko dira, nahiz eta ziurrenik 18 izango diren.

2024ko egutegi orientagarria honako hau izango da:

Iñurritza:
Martxoak 30
Uztailak 6
Uztailak 20
Abuztuak 3
Abuztuak 17
Abuztuak 31

Arkamurka:
Martxoak 29
Uztailak 5
Uztailak 19
Abuztuak 2
Abuztuak 16
Abuztuak 30

Hezeguneak:
Martxoak 28
Uztailak 12

- Las salidas que, en principio, tendrá que guiar la empresa adjudicataria son las siguientes: el itinerario de Arkamurka, el itinerario de humedales y el itinerario de Iñurritza.
- Las visitas guiadas del **itinerario de Arkamurka y el de los Humedales** se ofrecerán los viernes por la tarde en verano, alternando uno u otro cada semana, y el **itinerario de Iñurritza** se ofrecerá los sábados por la mañana, cada dos semanas.
- Las salidas guiadas se realizarán en dos épocas del año:
    - En Semana Santa.
    - En verano: julio, agosto y septiembre.
- En total, en principio, se proponen **18 visitas** guiadas, **6** de ellas para dar a conocer **Iñurritza**, **6** para conocer el **recorrido de los humedales** y otras **6** para disfrutar del **itinerario Arkamurka**.
- Sin embargo, alguna salida puede ser suspendida y el Ayuntamiento podrá proponer otra, comunicándolo en un plazo mínimo de 15 días.
- Por lo tanto, en el contrato entrarán como máximo 24 visitas, aunque probablemente sean 18.

El calendario orientativo para 2024 es el siguiente:

Iñurritza:
30 Marzo
6 Julio
20 Julio
3 Agosto
17 Agosto
31 Agosto

Arkamurka:
29 Marzo
5 Julio
19 Julio
2 Agosto
16 Agosto
30 Agosto

Humedales:
28 Marzo
12 Julio

Uztailak 26 Abuztuak 9 Abuztuak 23 Irailak 6	26 Julio 9 Agosto 23 Agosto 6 Septiembre

- Irteera eta amaiera non:
  - Iñurritzako irteera Borghetton hasi eta Zubiondon bukatuko da.
  - Arkamurkako irteera Aldapetako igogailuan hasi eta Zarauzko hondartzan bukatuko da.
  - Hezeguneen irteera Iritan, autobus geltokian hasi eta Buztinzurin bukatuko da.
	- Lugar de salida y finalización:
	  - La salida de Iñurritza comienza en Borghetto y termina en Zubiondo.
	  - La salida de Arkamurka comienza en el ascensor de Aldapeta y termina en la playa de Zarautz.
	  - La salida de los humedales en Irita comienza en la parada de autobús y termina en Buztinzuri.

- Ordutegia: goizeko irteerak 10:00etan abiatuko dira eta arratsaldeko irteerak 17:00etan. - Edonola ere, ordutegi eta leku horiek orientagarriak izango dira eta aldaketak izan ditzakete.	- Horario: las salidas de la mañana comenzarán a las 10:00 horas y las de la tarde a las 17:00 horas. - En todo caso, estos horarios y lugares serán orientativos y podrán sufrir modificaciones.
- Ibilbideen iraupena: 2-3 ordu artekoa izango da.	- Duración de los recorridos: entre 2 y 3 horas.
- Irteera gidatuen aforoa, gehienez, 20 pertsonakoa izango da. Aforoa mugatua izango denez, interesatuek aurrez Zarauzko Turismo Bulegoan izena eman beharko dute (telefonoz, bertaratuta edo e-posta bidez).	- El aforo máximo de las salidas guiadas será de 20 personas. Dado que el aforo será limitado, las personas interesadas deberán inscribirse (por teléfono, de forma presencial o vía e-mail) previamente en la Oficina de Turismo de Zarautz.
- Gutxieneko taldea 4 lagunekoa. - Eguraldi txarra egiten badu (alerta meteorologikoa) edo gutxieneko pertsona kopurua (4 pertsona) osatzen ez bada, irteera gidatua bertan behera geratuko da. Erabakia bezperako 18:30ak baino lehen hartu eta jakinaraziko dio Udalak adjudikaziodunari. Kasu horretan, bi aldeek, Udalak eta adjudikaziodunak, adostuko dute zer egin (beste egun batera aldatu edo faktura egokitu). - Dibertsitate funtzionaleko kolektiboren bati zuzendutako proposamena eskaintzen badu lizitatzaileak, irteera bereziak antolatu ahal izango ditu Udalak. - Irteerak, beti, bi hizkuntzatan eskainiko dira, eta horretarako taldeak bitan banatuko dira, bata euskarazkoa eta bestea gaztelaniazkoa izango da, aldi berean.	- Equipo mínimo 4 personas. - Si hace mal tiempo (alerta meteorológica) o no se reúne el número mínimo de personas (4 personas), la salida guiada será suspendida. El Ayuntamiento adoptará su decisión antes de las 18:30 horas de la víspera y lo notificará a la adjudicataria. En este caso, ambas partes, el Ayuntamiento y la adjudicataria acordarán qué hacer (cambiarla a otra fecha o adaptar la factura). - En el caso de que la empresa licitadora oferte una propuesta dirigida a algún colectivo con diversidad funcional, el Ayuntamiento podrá organizar salidas especiales. - Las salidas se ofertarán siempre en ambas lenguas, dividiendo los grupos en dos, uno será en euskera y otro en castellano, y al mismo

Ondorioz, bisita guztietara gutxienez 2 gidari joan beharko dira beti.	tiempo. En consecuencia, a todas las visitas deberán acudir siempre como mínimo 2 guías.
- EDUKIAK. Bisita gidatuetan azalpenak eman beharko dira: gune bakoitzaren habitatak, fauna, flora, hidrogeologia, paisaia, klima aldaketarekiko eragina, gunearen kudeaketa (jabetza, babes-figurak, kudeaketa-planak, orain arte egindako berreskuratze-lanak, hemendik aurrera egingo direnak) eta abar.	- CONTENIDOS. En las visitas guiadas se deberán explicar los hábitats, fauna, flora, hidrogeología, paisaje, afección al cambio climático, gestión del espacio (propiedad, figuras de protección, planes de gestión, labores de recuperación realizadas hasta la fecha, las que se llevarán a cabo a partir de ahora), etc. de cada zona.
- Irteeraren hasieran, gidak bisitariei doan banatuko dizkie Udalak sortutako eta ekoiztutako gida-liburuxkak, mapak eta umeentzako gidak. Material horiek guztiak euskaraz eta gaztelaniaz egongo dira eskuragarri Zarauzko Turismo Bulegoan: • EBUko mapa (3 irteeretan) • Zarauzko dunetako landaredia (Iñurritzako irteeran) • Zingirako esku-orria (Arkamurka ibilbidean) • Hezeguneak: EBU altxor ezkutuak (Hezeguneak irteeran) • Umeentzako gidak (Hezeguneen ibilbidekoa, Zingira basokoa eta Iñurritzako ibilbidekoa)	- Al inicio de la salida, la persona que ejerza de guía entregará gratuitamente a los y las visitantes los folletos, mapas y guías infantiles creados y producidos por el Ayuntamiento. Todos estos materiales estarán disponibles en euskera y castellano en la Oficina de Turismo de Zarautz: • Mapa de EBU (en las 3 salidas) • Vegetación de las dunas (en la salida de Iñurritza) • Folleto de Zingira (en el itinerario de Arkamurka) • Humedales: los tesoros escondidos de EBU (en la salida a los Humedales) • Guías infantiles (del itinerario de humedales, del bosque Zingira y del itinerario de Iñurritza)
- Adjudikazioduna saiatuko da ekintza bereziak egiten, hartara bisita interesgarria gerta dadin.	- La empresa adjudicataria procurará realizar acciones especiales para que la visita resulte interesante.
- Irteera gidatuen amaieran ebaluazio-orriak banatuko dira bisitarien artean, nahi duenak bete ditzan.	- Al final de las salidas guiadas se repartirán las hojas de evaluación entre las personas visitantes, para que quien lo desee pueda rellenarlas.
- Adjudikaziodunak Udalarekin harreman zuzena mantenduko du, lanak egin bitartean ohikoak ez diren gertakizunak azaltzeko, lehenbailehen, korreo elektronikoz, telefonoz edo aurrez aurre.	- La empresa adjudicataria mantendrá una relación directa con el Ayuntamiento para explicar, a la mayor brevedad posible, y por correo electrónico, teléfono o de manera presencial, hechos que no sean habituales durante la ejecución de los trabajos.
- Irteera gidatuen programen kartelak eta online zabaltzeko bestelako baliabideak egingo ditu adjudikaziodunak.	- La adjudicataria elaborará los carteles y otros medios de difusión online de los programas de las salidas guiadas.
- Irteeran ateratako argazkiak (bisitarien baimena dutenak) Zarauzko Udalarekin partekatuko dira EBUko sare sozialak eta webgunea elikatzeko	- Las fotografías de las salidas se compartirán con el Ayuntamiento de Zarautz (con la autorización de las personas visitantes) para alimentar las redes sociales y la web de EBU.

- Adjudikaziodunak urteko programa amaitu ondoren, bukaerako memoria-txostena aurkeztuko du.
- Irteera gidatuak hobetzeko proposamenak aurkeztuko dira programa amaierako memorian.

Ikastetxeekin egindako bisita gidatuak

- Udalak ikastetxe guztiei eskainiko die Eraztun Berde Urdineko eremuetara irteera gidatuak egiteko aukera. Ikastetxeek adierazi beharko dute ikasturte hasieran, irteera horiek egin nahi dituzten, zein mailako ikasleek parte hartzea nahiko luketen (Lehen Hezkuntzako edota Haur Hezkuntzakoek), zenbat ikasle izango liratekeen eta zein garaitan egin nahiko luketen.
- Udalak informazio hori adjudikaziodunari emango dio eta bera izango da ikastetxeekin harremanetan jarriko dena, egun zehatza, irteeren eremua, ordutegia eta ikasle kopurua zehazteko. Eguraldiaren arabera erabakiko da eguna. Dena dela, bi aukera eman eta irteera egingo ez balitz, adjudikaziodunak irteera hori bertan behera usteko aukera izango luke.
- Irteera bakoitzean gehienez 50 ikasle egongo dira.
- Irteera bakoitzean bi gidari egongo dira.
- Irteeraren hasiera eta amaiera: ikastetxearekin lotuko da lekua eta ordutegia.
- Ordutegia: egun erdikoa izango da (goizez)
- Egutegia: ikastetxe bakoitzak aukeratu ahal izango du zein garaitan egitea komeni zaion.
- EDUKIAK. Bisita gidatuetan azalpenak eman beharko dira: gune bakoitzaren habitatak, fauna, flora, hidrogeologia, paisaia, klima aldaketarekiko eragina, gunearen kudeaketa (jabetza, babes- figurak, kudeaketa-planak, orain arte egindako berreskuratze-lanak, hemendik aurrera egingo direnak) eta abar.
- Eduki horiek ikasleen mailara egokitu beharko ditu adjudikaziodunak.

- Una vez finalizado el programa anual, la adjudicataria presentará el informe memoria final.
- Se presentarán propuestas de mejora de las salidas guiadas en la memoria final del programa.

Visitas guiadas realizadas con los centros educativos

- El Ayuntamiento ofrecerá a todos los centros la posibilidad de realizar salidas guiadas a las zonas del Anillo Verde Azul. Los centros deberán indicar al comienzo del curso, si desean realizar dichas salidas, el nivel o niveles en los que desearían participar (Primaria y/o Infantil), el número de alumnado y la época en la que desearían hacerlo.
- Esta información será trasladada por el Ayuntamiento a la adjudicataria, quien se pondrá en contacto con los centros educativos para determinar la fecha concreta, el ámbito de salida, el horario y el número de alumnado La fecha que se determine dependerá del tiempo. No obstante, si se ofrecieran dos opciones y no se realizará la salida, la empresa adjudicataria podrá suspender la misma.
- El número máximo de alumnos y alumnas por salida será de 50.
- Habrá dos guías en cada salida.
- El inicio y fin de la salida: se decidirá con el centro el lugar y horario
- Horario: será de medio día (por la mañana)
- Calendario: cada centro podrá elegir la época en la que le convenga hacerlo.
- CONTENIDOS. En las visitas guiadas se deberán explicar los hábitats, fauna, flora, hidrogeología, paisaje, afección al cambio climático, gestión del espacio (propiedad, figuras de protección, planes de gestión, labores de recuperación realizadas hasta la fecha, las que se llevarán a cabo a partir de ahora), etc. de cada zona**.**
- La empresa adjudicataria deberá adaptar estos contenidos al nivel del alumnado.

- Bisitak euskaraz izango dira - Adjudikaziodunak ikastetxearekin lotzen duenean irteera noiz, nora eta ikasleen zein mailarekin egingo den, galdetuko du momentu horretan zer lantzen ari diren gela barruan eta saiatuko da loturak egiten, irteeran erakutsiko denaren eta gela barruan lantzen ari direnaren artean. - Adjudikazioduna saiatuko da jolas/tailerrak egiten eta material/tresna bereziak erabiltzen, irteera interesgarria gerta dadin. - Kontratu honen baitan gehienez 20 bisita sartuko dira, baina ziurrenik 15 izango dira gutxi gorabehera.		- Las visitas serán en euskera - Cuando la empresa adjudicataria decida con el centro educativo la fecha de la salida, el lugar y el nivel del alumnado que asistirá, deberá preguntar qué es lo que se está trabajando en ese momento dentro del aula e intentará establecer vínculos entre lo que se mostrará en la visita y lo que se está tratando dentro del aula. - La empresa adjudicataria procurará la realización de juegos/talleres y el uso de materiales/herramientas especiales para que la visita resulte interesante. - En el contrato entrarán como máximo 20 visitas, aunque probablemente sean 15.